



TESTU ETA ARGAZKIAK



Guillermo Vio
Dominguez
(So pala, 1999)

Al dantz Gora mendi taldeko ikidea da eta mendiek igoera eta trekkking ogea bidean gure gizonezkoak: Aconcagua, Chimborazo, Ararat, Elbrus, Kilimanjaro, Damavand...

Azken metroak Vizcaya Loko tontorrean litzeko

SANABRIA MENDITIK LAKURA, BAKARDADEA

Sanabria eskualdea Zamoran dago, baina inguruko tontorrak Galizia - Leongo mendigune batuean daude. Mapari, ibili bideetako garaierei begirada emanez, hiru gailur aukeratu genituen mendia eta turismoa uztartu nahian: Peña Trevinca (2127 m),

Teleno (2183 m) eta Vizcodillo (2121 m). Hiruren zatutako komun bakarra: bakardadea. Telenon eta Vizcodillon ez gennuen inor ikusi, eta Trevincan ibili ginen bederatzil ordu luzeetan beste hiru mendizalerekin bakanik egin genuen topo.

Gure kanpamentu nagusia Puebla de Sanabria kokatu genuen, multzo historiko-artistiko izendatutako alde zahar monumentalduen herri ederrean eta laku ospetsutik kilometro gutxira.

GALIZIA - LEONGO MENDIGUNEA


2006ko Pyrenaicako 224. zenbakia monografikoa da mendialde horretaz; beraz, eman beharreko azalpen guztiek bertan daude. Artikulu honetan bakarrak sипatuko dugu mendigune hori Leon, Zamora, Galizia eta Portugalgo iparraldetik hedatzendela, eta 2000 metrotik gorako gailur asko dituela, Telenoko tontorra mendigunearen sabaia izanik.

PEÑA TREVINCA ETA, BIDE BATEZ, PEÑA NEGRA IGOERA: 3 H 30 MIN (30 MINUTU GEHIAGO PEÑA NEGRARAINO)

Trevincako tontorrean Zamora eta Ourense probintziak batzen dira eta kokapen horrek sabai hirukoitza bihurtzen du mendia: bi probintzieta eta Galizia oscorena. Zamora aldeko ibilbide klasikoa Puebla de Sanabriatik 30 km-ra dagoen Laguna de los Pezesen hasten da. Aintzirako apartalekuaren bertan hasiera ematen zaio marratik urdin ilunekin ondo seinaleztatutako (2023ko uztailean) ibilbide bati, "Senda 7 - De Pezes a Peña Trevinca". Ia gailurraino iristen dira seinaleak.

Aparkalekua 1700 metroko altueran dago, baina, ikusiko dugunez, altitude hori erreferentzia engainagarria da. Nabarikoa den pista batetik hasiera ematen zaio ibilaldiari, artzain-txabola baten aurrean igoroz eta goiko gune batera (1950 m) iritsi arte. Lautada txiki bat egin ondoren, nabarmen behera egiten du bideak Tera ibaiaren haran ikusgarriraino (1600 m). Engainagarria izatearena ulertzen hasi...?

Jaitserian, Cuchilla iturritik igarotzen gara (udan lehor egon daiteke). Riopedroko aterpea aurkituko dugu, ezustekoren bati surre egiteko modukoa. Tera ibaiaren gaineko Zubia zeharkatuz, ibaiak sortutako haran luzeari ekiten zaio, al-



tu eran metro bakar bat ere irabazi gabe, Peña Trevinca oinamira heldu arte. Hor, bat-batean, falta zaizkigun 500 metroko igoerari zuzen-zuzen ekin behar zio.

Azken igoera aldapatsu hau erraza da: behealdean landaretza lur-eremutik eta, pixkanaka, gora egin ahal, haitzen artean. Ez dago zaitasunik, eta oso gutxitan erabili beharko ditugu eskuak laguntza gisa. Gailurrarean, eroritako hormigoizko gurutz handi batek ongietorría egingo digu: ederra da ikuspegia, inguruko tontor, haran eta hemi gehienak ezagutzen ez ditugun arren.

Tontorrean gau delarik, oso gertu, lepoaren beste aldean, Peña Trevinca bezain garai edo garaiagoa dirudien tontor batek atenzioa ematen digu eta hara goaz: efektu optikoa da besterik ez, gailur horrek (Peña Negra) Trevinca batzuk baino 6 m gutxiago ditu.

Bide beretik egingo dugu itzuleria Trevincako azken metroak berrira igo gabe, eta bi gailurrak elkartzen dituen lepotik zidorrik gabe abiatuko gara igoerako bidearekin bat egin arte. Itzuleran oso astuna egiten da Tera ibaitik goizian jaitzitako 300 metroak igo behar izatea aparkalekura bueltatzeko.

"Garaiera engainagarria" argi ez bazegoen, orain emezatatu egiten gaitu.

Antzinako astur herritarren uestez, mendi sakratua zen Teleno

Azken dhar bat: inguru hauetan abere asko daude artzakurren zaintzaileen, batez ere Terako ibaiertzetan, otso asko baitaude. Guik ez genuen arazorik izan, baina...

TELENO: ISTORIOAK ETA HISTORIA IGOERA: 2 H

Antzinako astur herritarren uestez, mendi sakratua zen Teleno: Tilenus jainkoarekin lotutako kultu indigenen berri ematen duten petroglifoak aurkitu dira; gailur osoan harri pilaketa handiak daude, hilera-ermiak egiten ziren eraikin zaharren honda-kinkak izan daitezkeenak, eta kondaira batek dio urezko ehun maila zituen eskailera bat



gailurreraino iristen zela eta bertan metal preziatuzko zezen batere ezkutatzenten zela.

Mitologik dio hori, baina, Historiari so, Errromatarrazaidekin batera, datu batzuk zehatzagoak dira eta Marte jaungoikoarekin pareka daiteken jainko gerlari baten berri ematen zaigu; dirudienez, akerrak, zaldiak eta presoak ere sakrifikatzen zitzazkion. Errromatarrek Mars Tilenus deitu zioten eta meategi garrantzitsu bihurtu zuten. Norik ez luke gogorik izango halako istorioak eta historia dituen mendi batera igotze?

Menditzarhonek Leongo Cabrera eskualdea mugatzen du hegoaldean eta Maragateria iparraldean. Izan ere, ohiko igoerak iparraldeko isurialdetik egiten dira, Astorga sibiapuntu "turistiko" gisa hartuta. Puebla de Sanabria tikit, aldiz, hurbilago daude hegoaldeko mazelak eta ondorioz 51 km-ra dagoen Corporales herrixkatik abiatu gara tontorraren bila. Herria amaitu eta ibaia eskuinean dugularik, 2 kilometro gehiago egiten dira erre pide txilibratetik zubi bat zeharkatu arte, ibaieren ezkerraldean geratzeko. Han hasten da txilar arteko bidea ezkutu bat; "Telenoranzko bidea" jartzen duen kartel batek zaintza guztiek uxatuko dizkigu.

Ibilbidearen lehen zatia igoera zuzen da, Citera izenez ezaguna den harlaitz-eremu ikusgarri bateraino. Gero, atseginagoa egiten da bidezidora, gure eskuinerantz, ekialderantz, zelai batetik jarraitzen duena, mendiaren bihurguneari jarraituz. Diagonalesan altuera irabaziko dugu, gailurrerantz doan bidea aurkitu arte. Tontorrera heltzeko azken zatia harlaitzen artean egingo dugu.


VIZCODILLO, BIDE MOTZETIK

IGOERA: 90 MIN

Vizcodillok badu ia mila metroko desnibela duen igoera dotore-dotorea Leongo Tru-



Sanabriako Lakua



chas herritik Truchillas aintziratik igoroz. Guk oraingoan "tranpa" egindo dugu eta Periñón edo Vizcodillo mendatetik igoko gara, Puebla de Sanabria tik 29 km-ra. Hemandik, igoera "goizeko ibilaldiboa" baino ez da, eta horrek aukera ederra eskaintzen du arratsaldean Sanabriako lakutik eta inguruko herrietatik turismoa egiteko. Mendatearen goiko aldean, 1835 metrotan, Zamora eta Leonen arteko mugan bertan, hasiera ematen zaio igoera labur honi. Galtzerik ez da: Vizcodilloko bizkar osoa eta mendiaren gailur bikotza begi bistean ditugu abiapuntutik.

ditugu abiapuntutik. "Beti" gertatzen den bezala, tontor nagusia bigarrena da, urrunen dagoena.

Vizcodilloko bizkar osoa eta mendiaren gailur bikotza begi bistean ditugu abiapuntutik

Oso erraz jarraitzen da bidezidorra. Txilarren eta hainbat landarerren arteko ibilaldi atsegina da: oso aldapa erosoa maldha handirik gabekoa. Alto de los Alamicos (1958 m) inguratzen du bideak, baina mirezi du tontor horrigotzea gure igoeran edo jaitsieran. Horrela, inolako oztoporik gabe, Vizcodillo Faitsuaren (2112 m) oinamiraino heldu eta ezkerretik inguratuko dugu, gailur nagusiaren oinean jarri arte. Tontorrera iristeko (2121 m), haitz erraldoiez osatutako hamitza motz batetikigoko gara.

Sanabriakoalde zaharra



SANABRIAKO LAKUA: HISTORIA BELTZA

Lakuanen goiko aldean Ribadelago herri txikia dago. Bertan, Francoren uztiegien pasarterik beltzena erakutzen da, erabat isildua eta ahaztua. Hemitik kilometro gutxi batzuetara pese bat erakiz zuten Tera ibaien eta, lanak amaitu baino lehen, urez bete zuten. 1959ko urriaren 9an, horma lehertu eta zortzi milioi m³-ko uholde batek Ribadelago irentsi zuen: 500 bizilagunetik 144 hil ziren, 12 milia osorik desagertu eta 23 gorputz baino ez ziren berreskuratu; gaixarakoak Sanabriako lakuanen hondoa daude oreindik. Zentral hidroelektrikoko ardura dunduk epaitu zituzten, baina ez zuten kartzela-zigorra bete, industria eman zieten eta. Erregimenak herri berri bat sortu zuen 500 metro gorago, Ribadelago de Franco izenez, Memoria Historikoaren Lega batez Ribadelago Nuevodeitu zen arte.

Normalean, gertaera eraile bat eketxaz edo ipuin bat sortzen du. Kasu honetan kontrako gertatu da: hain zuzen ere, Sanabriako lakuanen jatorriari buruzko kondaia bat dago, ez behar horren aurrean abisua ematen duena. Esan ohi da egun batean enomes bat initsi zela Valverde de Lucena herriklara limos ne eske, eta inork ez ziola ezertzio ere eman, ojia egitenari ziren emakume batzuek izan ezik. Hain zuzen, gosas asezelko ojia emateaz gain, ermititu eta laba ondoan geratzea eskaini zituen hontzari aurre egin zizelton. Enomesak herria zigortzea erabaki zuten etabere mikelaturnen sartuzuen. Une herten, ura borborik aterazten Valverde herria urez betez, sekulako aintzira bihurtu arte. Emakumeek eta labea baino ez ziren salbatu: ikusn dauden irratxoada.

Simplagoa da errealtitatea: glaziazioen garaien, glaziar ikusgarribatzan zen Sanabriako egungo lakuanen jatorria, gaur egun Iberiar Penintsulako aintzira natural handiena denea.